**2016ko ABENDUAREN 15eko UDALBATZARRA**
PLENO DE 15 DE DICIEMBRE DE 2016

**BERTARATUAK /** ASISTEN**:**

**ALKATEA /** ALCALDE: **JOSU IRATZOKI AGIRRE**

**ZINEGOTZIAK** / CONCEJALES Y CONCEJALAS**:**
**Mª ARANZAZU ZUBIETA OCHOTECO, IXONE TELLECHEA URANGA, AITOR ELEXPURU EGAÑA, MIKEL LERTXUNDI KORTA, JOSE MIGUEL GORRIA VICUÑA, JOSE ANTONIO OYARZABAL IRIBAS, RAQUEL QUIROGA TAPIA, JUAN LOSA OCARIZ.**

**IDAZKARIA** / SECRETARIA: **PILAR CHUECA INTXUSTA.**

**BERTARATU EZ DIRENAK /** NO ASISTEN:
**JOSE MANUEL PORTU BERASATEGUI, GERMAN CASTILLO LAZCANOTEGUI (eririk /** enfermedad**).**

| | |
|---|---|
| **Tokia: BERAko Herriko Etxea** | Lugar: Casa Consistorial de BERA |
| **Eguna: 2016-12-15** | Día: 15-12-2016 |
| **Ordua: 19:30** | Hora: 19:30 |
| **Bilera-mota: ohikoa, 1. deialdia** | Tipo sesión: ordinaria, 1ª convocatoria. |

| | |
|---|---|
| **TRATATZEKO GAIAK:** | ASUNTOS A TRATAR: |
| **1.- AZKENEKO AKTA ONARTZEA.-** | 1.- APROBACIÓN ACTA SESIÓN ANTERIOR.- |
| **2016.eko azaroaren 17an egindako bilera-ren akta ikusirik, aho batez, ONARTU DUTE.** | Vista el acta de la sesión celebrada el día 17 de noviembre de 2016, por unanimidad SE APRUEBA. |
| **2.- "GOI PRESIOKO UR HORNIDURA. LESAKA-BERA KONPONBIDE BATERATUA. BATERAKO JARDUERAK 1. FASEA" PROIEKTUA GAUZATZEKO OBRAK KONTRATATZEARI HASIERA EMATEA.** | 2.- INICIO CONTRATACION OBRAS DE EJECUCIÓN DEL PROYECTO DE "ABASTECIMIENTO DE AGUA EN ALTA. SOLUCIÓN CONJUNTA LESAKA-BERA. ACTUACIONES COMUNES 1ª FASE". |

***Alkateak gaia azaldu du, bereziki, aurrekontuaren obra, epea eskaintzak aurkezteko, balorazio teknikoa eta adjudikatzeko irizpideei dagokiena, gero Idazkariak eraman behar den prozedura.***

*El Alcalde explica el asunto, especialmente, lo referente al presupuesto de la obra, plazo de presentación de ofertas, valoración técnica y criterios de adjudicación y la Secretaria el procedimiento que se va a llevar.*

***Horren ondotik, aho batez, honako erabakia hartu dute:***

*Tras ello, por unanimidad, adoptan el siguiente acuerdo:*

**Ikusirik, "Goi presioko ur hornidura. Lesaka-Bera konponbide bateratua. Baterako jarduera 1. fasea" izeneko proiektua gauzatzeko obrak kontratatzeko espedientea.**

Visto expediente de contratación de las obras de ejecución del Proyecto de "Abastecimiento de agua en alta. Solución conjunta Lesaka-Bera. Actuaciones comunes 1ª fase".

**Dokumentazioa:**
**- "Goi presioko ur hornidura. Lesaka-Bera konponbide bateratua. Baterako jarduera 1. fase" obrak gauzatzeko proiektua, 2014-ko irailekoa, LKS Ingeniería s. coop.ek egina (Juan C. Ovalle Cortissoz, Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniaria).**

**- "Goi presioko ur hornidura. Lesaka-Bera konponbide bateratua. Baterako jarduera 1. fase". 2015eko azaroko berrikuspena, LKS Ingeniería s. coop.ek egina (Juan C. Ovalle Cortissoz, Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniaria).**

Documentación:
- Proyecto de las obras de "Abastecimiento de agua en alta. Solución conjunta Lesaka-Bera. Actuaciones comunes 1ª fase", de septiembre de 2014, redactado por LKS Ingeniería s. coop. (Juan C. Ovalle Corissoz Ingeniero de Caminos, Canales y Puertos).

- "Abastecimiento de agua en alta. Solución conjunta Lesaka-Bera. Actuaciones comunes 1ª fase". Revisión noviembre de 2015, redactada por LKS Ingeniería s. coop. (Juan C. Ovalle Corissoz Ingeniero de Caminos, Canales y Puertos).

**Ikusirik, Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legearen 65 artikuluari jarraikiz, Idazkaritzak egindako txostena.**

Visto informe de Secretaría emitido de acuerdo con lo establecido en el artículo 65 de la Ley Foral 6/2006 de Contratos Públicos.

**Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legearen 65., 128. artikulua eta honen ondokoei jarraikiz,**

De acuerdo con lo establecido en los artículos 65, 128 y siguientes de la Ley Foral 6/2006 de Contratos Públicos.

**ERABAKI DUTE:**

**1) "Goi presioko ur hornidura. Lesaka-Bera konponbide bateratua. Baterako jarduera 1. fasea" proiektua gauzatzeko obrak kontratatzea baimentzea.**

**2) "Goi presioko ur hornidura. Lesaka-Bera konponbide bateratua. Baterako jarduera 1. fasea" proiektua gauzatzeko obrak kontratatzeko espedienteari hasie-**

SE ACUERDA:

1) Autorizar la contratación de las obras del proyecto de "Abastecimiento de agua en alta. Solución conjunta Lesaka-Bera. Actuaciones comunes 1ª fase".

2) Aprobar el inicio del expediente de contratación para la ejecución de las obras del proyecto de "Abastecimiento de agua en alta. Solución conjunta Lesaka-Bera. Actua-

**ra emateko onestea, Europar Batasuneko atalasetik beherako prozedura irekiaren bidez.**

ciones comunes 1ª fase", por procedimiento abierto inferior al umbral comunitario.

3) **Espediente honetan dagoen baldintza administratiboen plegua onestea.**

3) Aprobar el pliego de condiciones administrativas que consta en este expediente.

4) **Kontratazio honi buruzko iragarkia Nafarroako Kontratazioaren Atarian jartzeko baimena ematea.**

4) Autorizar el anuncio de esta contratación en el Portal de Contratación de Navarra.

5) **5 hilabeteko kontratua denez ez dagoela prezioak berrikusterik adieraztea.**

5) Señalar que al ser un contrato de duración de 5 meses no procede la revisión de precios del mismo.

**3.- NAFARROAKO GOBERNUAREN TETRA IRRATIAREN TEKNOLOGIA DIGITALA DUEN SAREA ERABILTZEKO SINATU BEHAR DEN HITZARMENA ALDATZEA.**

3.- MODIFICACIÓN DEL CONVENIO PARA LA UTILIZACION DE LA RED DE TECNOLOGIA DIGITAL DE RADIO TETRA DEL GOBIERNO DE NAVARRA.

***Idazkariak gaia azaldu eta gero, aho batez, honako erabakia hartu dute:***

*Tras explicar la Secretaria el asunto, por unanimidad, adoptan el siguiente acuerdo:*

**2016ko urriaren 20an Udalak eginiko osoko bilkuran Nafarroako Gobernuaren Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuak eta BERAko Udalak sinatu behar duten Hitzarmena, Nafarroako Gobernuaren Trunking Irrati Digitalaren Sarean (RRTF), TETRA digital teknologia duen horretan, Udal honetako albienteak integratzekoa, onartu zuen.**

En el Pleno celebrado el 20 de octubre de 2016 el Ayuntamiento aprobó el texto del convenio a suscribir con el Departamento de Presidencia, Función Pública, Interior y Justicia del Gobierno de Navarra, relativa a la integración de los alguaciles de este Ayuntamiento en la Red de Radio Trunking Digital (RRTF) de tecnología digital TETRA del Gobierno de Navarra.

**Geroztik, aipatu departamentuak hitzarmen honen bosgarren klausularen aldaketa, 40/2015 Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legeari egokitzekoa, 49. h) artikuluari, hain zuzen, bidali du.**

Posteriormente, el citado departamento ha remitido la modificación de la cláusula quinta de dicho convenio para su adecuación a la Ley 40/2015 de Régimen Jurídico del Sector Público, en concreto a lo dispuesto en su artículo 49 h).

**Hori dela eta, ERABAKI DUTE:**

Por todo lo anterior, SE ACUERDA:

**1) Nafarroako Gobernuaren Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuak eta BERAko Udalak sinatu behar duten Hitzarmenaren bosgarren klausularen aldaketa onartzea, espedientean dagoen moduan.**
**Hitzarmen hori Nafarroako Gobernuaren Trunking Irrati Digitalaren Sarean (RRTF), TETRA digital teknologia duen horretan, Udal honetako albienteak integratzekoa da.**

1) Aprobar la modificación de la cláusula quinta del convenio a suscribir con el Departamento de Presidencia, Función Pública, Interior y Justicia del Gobierno de Navarra, relativa a la integración de los alguaciles de este Ayuntamiento en la Red de Radio Trunking Digital (RRTF) de tecnología digital TETRA del Gobierno de Navarra, según consta en el expediente.

**2) Toki Entitateen Antolaketaren, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoaren gaineko Erregelamenduaren 41.12. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, aipatu hitzarmena Jose Iratzoki Agirre Alkateak, edo legalki ordezkatzen duenak, sinatuko duela adieraztea.**

2) Señalar que, de conformidad con el artículo 41.12. del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Corporaciones Locales, el Alcalde Josu Iratzoki Agirre o quien legalmente le sustituya será quien llevará a cabo la firma de dicho convenio.

**3) Erabaki hau Nafarroako Gobernuaren Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuari igortzea behar den ondorioetarako.**

3) Trasladar este acuerdo al Departamento de de Presidencia, Función Pública, Interior y Justicia del Gobierno de Navarra a los efectos oportunos.

**4.- JOSE M. PORTU BERASATEGUIK ZINEGOTZIAREN KARGUARI UKO EGITEA.**

4.- DIMISIÓN DEL CONCEJAL JOSE M. PORTU BERASATEGUI.

***Idazkariak gai honen prozedura azaldu ondoren, aho batez, honako erabakia hartu dute:***

*La Secretaria explica el procedimiento de este punto, tras ello, por unanimidad, adoptan el siguiente acuerdo:*

**Ikusirik, JOSE MANUEL PORTU BERASATEGUI zinegotziak aurkeztutako dimisio-idatzia non arrazoi pertsonalengatik zinegotzi karguari uko egin behar diola dioen.**

Visto escrito de dimisión presentado por el concejal JOSE MANUEL PORTU BERASATEGUI en el que indica que por motivos personales ha decidido dimitir del cargo de concejal.

**ERABAKI DUTE:**

SE ACUERDA:

**1) JOSE MANUEL PORTU BERASATEGUI zinegotziak aurkeztutako dimisioaz jakinen gainean gelditzea.**

1) Tomar conocimiento de la dimisión presentada por el concejal JOSE MANUEL PORTU BERASATEGUI.

**2) Behar den dokumentazioarekin batera akordio hau Hauteskunde Batzorde Nagu-**

2) Remitir este acuerdo con la documentación pertinente a la Junta Electoral Central.

**sira bidaltzea.**

**3) JOSE MANUEL PORTU BERASATEGUI zinegotziari Udaletxe honetan egin dituen zerbitzuak eskertzea.**

3) Agradecer al concejal JOSE MANUEL BERASATEGUI los servicios prestados en este Ayuntamiento.

**5.- BANDOAK ETA ALKATEAREN EBAZPENAK.-**

5.- BANDOS Y RESOLUCIONES DE ALCALDÍA.-

**Honako bando eta Alkatetzaren ebazpen hauetaz jakinen gainean gelditu dira:**

Quedan enteradas y enterados de los siguientes bandos y resoluciones de Alcaldía:

**1) Bandoak: B28/2016tik B31/2016era.**

1) Bandos: B28del /2016 al B31/2016.

**2) Ebazpenak: 2016ko azaroaren 14ko 221. ebazpenetik 2016ko abenduaren 5eko 240.era arte.**

2) Resoluciones: De la resolución nº 221 de 14 de noviembre de 2016 a la nº 240 de 5 de diciembre de 2016.

***Gai zerrendatik kanpo, premiazko bozketa egin ondoren, aho batez, legeak eskatutako gehiengo osoa betea izanik, honako gai hau tratatu dute:***

*Fuera del orden del día, previa votación de urgencia, por unanimidad, que representa la mayoría absoluta legalmente exigida, se trata el siguiente asunto:*

**6.- 2016. URTEKO PDR-LGP DEIALDIAN AURKEZTU BEHAR DIREN PROIKTUETARAKO DIRULAGUNTZA ESKATZEA**

**6.- SOLICITUD DE AYUDA PARA PROYECTOS A PRESENTAR EN LA CONVOCATORIA PDR-LGP DEL AÑO 2016.**

***Alkateak gaia azaldu eta, aho batez, honako erabakia hartu dute:***

*El Alcalde explica el asunto y, por unanimidad, adoptan el siguiente acuerdo:*

**2016ko azaroaren 15eko 220. zenbakidun Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu dute 2016. urteko Cederna-Garalur Elkartearen diru-laguntzen deialdia, tokiko garapenerako estrategia parte-hartzailearen esparruan LEADERren baitan Landa Eremuaren Garapenerako (LGP) 2014-2020 (EDLP) proiektuak bideratzekoa.**

En el Boletín Oficial de Navarra nº 220 de 15 de noviembre de 2016 se publicó la convocatoria de ayudas de la Asociación Cederna-Garalur del año 2016 para proyectos conforme a la estrategia de desarrollo local participativo (EDLP) LEADER en el Plan de Desarrollo Rural (PDR) 2014-2020.

**Hori dela eta, ERABAKI DUTE:**

Por lo que, SE ACUERDA:

**1) Berako bero-sarea Ikastolara zabaltzeko**

1) Solicitar ayuda en la citada convocatoria

**proiekturako aipatu deialdi horretako diru-laguntza eskatzea.**

para el proyecto de ampliación de la red de calor de Bera a Ikastola.

**7.- ESKARIAK ETA GALDERAK. BESTE UDAL ORGANOEN KONTROLA.**

7.- RUEGOS Y PREGUNTAS. CONTROL DE LOS DEMÁS ÓRGANOS DE LA CORPORACIÓN.

**Ez dira burutu.**

No se producen.

**Besterik gabe, Alkateak bilera bukatutzat eman du 20:00etan.**

No habiendo más asuntos, el Alcalde levanta la sesión a las 20:00 horas.

**O.E. ALKATEA/** V.B. EL ALCALDE
Josu Iratzoki Agirre

**IDAZKARIA/** LA SECRETARIA
Pilar Chueca Intxusta